

10. KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateko suskripzioetaz hornitzen garenez, prezio nahiko baxu edo egoki bat jarriko dugu, jendea erakartzeko, eta “Premium” bertsioa ordaintzeko, zerbitzu guztiak (eskuragarri izateko).

Gure enpresak ez duenez denda pribatuekin lanik egingo, ez dugu inolako diru-irteerarik izango haiei ordaintzeko, eta horrela, diru-portzentai handiagoa enpresarako izango da zuzenean.

Bukatzeko, webgunearekin edo aplikazioarekin arazoren bat izanez gero, teknikari profesional batengana joko genuke, baina ez dugu uste beharrezkoa denik inori kontratu finkorik egitea, orduan ez dugu soldata finkorik ordaindu behar.

